


Euskal AEko BPGk urte arteko %2,7ko hazkundera izan zuen 2015eko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %1,0ko hazkundera

2015eko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %2,7 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera; datua aurreko hiruhilekoa baino bost hamarren hobe da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %1,0ko aldakuntza. Uztailaren 29an emandako aurrerapenduen aldean, urte artekoak hobera egin du hamarren batez eta hiruhileko artekoak biz.

Euskal ekonomiaren hazkundera 2015eko bigarren hiruhilekoan Espainiakoaren horixe izan da hiruhileko artean, lau hamarren txikiagoa urte artean eta puntu bat eta bi hamarren handiagoa Eurozona-19koaren (%+1,5) aldean.



Eskaintzaren ikuspegitik, BPGren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztien bilakaera positiboari zor zaio, salbuespena lehen sektorea (%-20,1) delarik. 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean industriaren hazkunde-erritmoa bizkortu egin da. Eraikuntzan berriz ere hazkunde-erritmoa moteldu. Zerbitzuetan oro har dugu urte arteko hazkunde-tasa handiena, aurreko hiruhilekoa baino

handiagoa ere. Bereziki nabarmena da Gainerako Zerbitzuetan, non dauden besteren artean, jarduera profesionalak, finantzetakoak eta aseguruak.

Industria, hiruhileko honetan, %3,1 gehitu da urte artean, lehenengoan baino bi puntu eta zazpi hamarren gehiago. Urte arteko honek %3,0ko hazkundea ekarri du aurreko hiruhilekoaren aldean.

Manufaktura-industria hamarren bat gehiago (%3,2) hazi da; hiruhileko artean %1,8.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013	2014	2014				2015	
			I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-3,5	-10,0	-12,3	-7,0	-3,6	-17,1	-9,9	-20,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-2,7	1,5	1,4	1,5	2,0	1,3	0,4	3,1
Manufaktura-industria	-2,5	2,3	1,8	2,5	2,8	2,1	0,4	3,2
ERAIKUNTZA	-4,6	-3,2	-4,2	-3,7	-2,7	-2,1	0,6	0,2
ZERBITZUAK	-1,1	1,5	0,3	1,0	1,9	2,8	3,0	3,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,4	2,0	0,7	1,5	2,3	3,4	3,2	3,3
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	0,6	2,1	1,9	2,1	2,1	2,5	2,6	2,3
Gainerako zerbitzuak	-1,9	0,9	-0,7	0,1	1,5	2,6	3,0	3,3
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-1,8	1,1	0,2	0,8	1,6	2,0	2,1	2,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,6	3,8	5,1	4,7	2,8	2,9	2,7	2,9
BPG merkatuko prezioetan	-1,8	1,4	0,6	1,1	1,7	2,0	2,2	2,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntza %0,6 hazi zen urte artean 2015eko lehen hiruhilekoan; gutxiago, %0,2, bigarreanean. Urte arteko lau hamarren gutxiago horrek %2,8ko jarduera-mailaren jaitsiera aurreko hiruhilekoaren aldean dakar.

Zerbitzuetan, urte arteko %3,1eko eta hiruhileko arteko %0,8ko hazkundeak.

Zerbitzuen urte arteko %3,1eko hazkundea azpisektore guztiei zor zaie. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** eta **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) adarretan dugu hazkunderik handiena, %3,3. Lehen adarrean eta lehen hiruhilekoaren aldean urte artekoak hamarren batez egin du hobera; **Gainerako zerbitzuetan** hiruz. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,3 hazi dira urte artean, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago.

Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuekin lotutakoetan dugu azpisektore arteko hiruhileko arteko hazkunderik handiena, %1,3. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,3 hazi da eta %0,8 **Gainerako zerbitzuak**.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera positiboa ekarri du, %2,7; 2014ko lehen hiruhilekoan hasitako positibotasunari eusten zaio. Datua sei hamarren hobia da aurreko hiruhileko urte artekoa baino. Hiruhileko artean %1,0 hiruhileko honetan

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2014				2015	
	I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-4,4	3,8	-5,0	-12,1	3,9	-7,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,6	0,3	0,9	-0,5	-0,3	3,0
Manufaktura-industria	3,0	-0,9	0,9	-0,9	1,3	1,8
ERAIKUNTZA	-5,5	-2,4	1,1	5,0	-2,9	-2,8
ZERBITZUAK	1,0	0,7	0,5	0,6	1,2	0,8
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,9	0,2	0,4	1,9	0,7	0,3
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,3	1,5	0,4	-1,7	2,4	1,3
Gainerako zerbitzuak	0,4	0,5	0,6	1,1	0,8	0,8
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	0,4	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,6	0,8	0,5	1,1	0,4	1,0
BPG merkatuko prezioetan	0,4	0,5	0,5	0,6	0,6	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Urte artean %2,7ko hazkundera dugu **Barne Eskarian**; aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren hobeto. Positibotasun hau bi osagarrietan dugu, Azken Kontsumoko Gastuan eta Kapital Eraketa Gordinean. Bai esportazio, bai inportazio mailetan antzeko hazkunde-tasak.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuak (Kontsumo pribatuak) urte artean azkartu egin du hazkunde-erritmoa, 2014an zehar bezalaxe. %3,3ko hazkundera dugu hiruhileko honetan; aurrekoan baino lau hamarren gehiago; hiruhileko artean %1,7.

Kontsumo publikoa (Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua) %1,1 hazi da urte artean (bederatzi hamarren gehiago aurreko hiruhilekoan baino) eta %-3,9 hiruhileko artean.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013	2014	2014				2015	
			I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	-1,2	1,5	0,4	1,3	1,8	2,5	2,3	2,9
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	-1,1	1,6	0,2	1,4	2,3	2,7	2,9	3,3
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,8	1,1	1,2	1,0	0,2	2,0	0,2	1,1
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-4,9	-0,6	-1,5	-0,7	-0,5	0,2	1,3	1,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	-3,4	3,0	1,3	2,5	4,1	4,3	3,8	5,9
Gainerako kapital-eraketa gordina	-5,5	-2,1	-2,6	-2,0	-2,4	-1,5	0,3	0,0
BARNE-ESKARIA	-2,1	1,1	0,0	0,9	1,3	2,0	2,1	2,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	0,9	3,6	3,6	2,2	3,9	4,8	-1,4	1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,3	3,0	2,5	1,8	3,2	4,6	-1,3	1,8
BPG merkatuko prezioetan	-1,8	1,4	0,6	1,1	1,7	2,0	2,2	2,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetakoa) %2,9 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean %0,5eko hazkundera.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %1,8 hazi da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino bost hamarren gehiago. Hiruhileko arteko hazkundera, %0,8. Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeretan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %5,9 hazi da urte artean eta %4,1 hiruhileko artean. Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- %0,0 urte artean, %-0,6 hiruhileko artean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2014				2015	
	I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	1,8	-0,1	0,2	0,6	1,6	0,5
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,2	1,2	0,6	0,7	0,4	1,7
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	8,2	-4,8	-1,3	0,2	6,4	-3,9
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,2	0,4	0,7	1,3	-1,0	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,2	2,1	2,4	-1,4	0,6	4,1
Gainerako kapital-eraketa gordina	-3,5	-0,4	-0,1	2,5	-1,7	-0,6
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	1,7	6,0	3,5	-6,1	-4,2	9,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	2,5	5,0	3,0	-5,6	-3,3	8,2
BPG merkatuko prezioetan	0,4	0,5	0,5	0,6	0,6	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (**Dedikazio osoko baliokidetzan** neurtuta) %1,7 hazi da urte artean, bosgarren hazkundera jarraian. 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean, urte arteko honek %0,7ko hazkundera dakar.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua jaitsi egin da Industrian eta Eraikuntzan eta gehitu Lehen sektorean eta zerbitzuetan. Zerbitzuetan %2,5 hazi da enplegua urte artean. Lehen sektorean %0,8 hazi da. Urte artean jaitsierak Industrian, %-0,3 eta Eraikuntzan, %-0,2.

Hiruhileko artean lau sektore handietatik hirutan tasa positiboak. Lehen sektorean %6,8; Zerbitzuetan %0,8. Industrian %0,3ko hazkundera hiruhileko artean. Eraikuntzan %-0,2.

Urte artean, **BPG** %2,8 hazi da Araban eta Gipuzkoan; %2,7 Bizkaian. Hiruhileko artean, Araban eta Bizkaian %1,1; Gipuzkoan %0,9.

Ohar metodologikoa: Eustatek Hiruhileko Kontuetara Euskal AEko Kontu Ekonomikoetako 2013ko behin betiko datuak eta 2014ko aurrerapen datuak ekarri ditu; hiruhilekoetako serieak berriz zenbatetsi behar izan dira.

Informazio gehiago:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhileroko kontuen gaineko prentsa-ohar gehiago (HKE)

Euskal AEko hiruhileroko kontuen gaineko datu-bankua (HKE)